

**Ardatza lehiakortasunean jarrita**

## **EROSKI-K LUZARORAKO JAITSI DITU PREZIOAK MILAKA PRODUKTUTAN**

- **7.000 produktu baino gehiago merkatu ditu hipermerkatu handietan eta milatik gora supermerkatu txikietan**
- **EROSKI k balio katean egin dituen hobekuntzetatik dator prezio jaitsiera**
- **Joan den urtean, EROSKI k 260 milioi euro aurreztu zizkien familiei, bere eskaintzen eta promozio gero eta pertsonalagoen bitartez**

**2017ko ekainaren 1a.-** [EROSKI](#) k milaka produkturen prezioa jaitsi du bere supermerkatu eta hipermerkatuetan, eta, hala, beste pauso bat eman du kontsumitzaileen aurrezpenarekin duen konpromisoan. Kooperatibako bezeroek prezio lehiakorragoak izango dituzte hipermerkatuetako 7.000 artikulutan ere eta supermerkatu txikienetako 1.000 produktutan baino gehiagotan. Prezio jaitsierak ohiko erosketetan hartzen diren artikuluetan aplikatu dituzte.

EROSKIren plan estrategikoak denden lehiakortasunean jarria du ardatza datozen urteetarako, eta Bezero Bazkidea jarri du erabaki guztien erdian. EROSKI k prezioen jaitsiera orokor bat egin du oraingo aldian, eta horien gainean bezero guztientzako eskaintzen deskontuak joango dira, orobat Bezero Bazkideentzako promozio pertsonalizatuak EROSKI Klubaren fidelizazio programaren bitartez.

*"EROSKIren prezio jaitsiera orokor honekin beste pauso bat eman dugu kontsumitzaileei dirua aurrezteko orduan eta, hala, baita ongizatean eta bizi kalitatean laguntzeko orduan ere. Gure hornikuntza katean hobekuntzak egin ditugulako jaitsi ditugu prezioak, eta gure bezeroek bere gustuko fabrikatzaile marken produktuak eta marka propiokoak aurkituko dituzte merkeago",* ziurtatu du EROSKIren Marketin zuzendariak, Eva Ugartek.

EROSKI k askotariko produktuetan aplikatu du prezioen jaitsiera orokorra, hala nola 3.000 janari produktutan, 1.500 edaritan eta drogeriaren eta lurrinaren 2.700 produktutan. Kooperatibak komunikazio kanpaina indartsu bat aktibatu du, bere dendetan prezioa zein produktutan jaitsi duen adierazteko eta bezeroak erraz identifikatzeko.

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



## **EROSKI 260 milioi euro aurreztu dizkie familiei**

Iaz, EROSKI-k denera 260 milioi euro aurreztu zizkien familiei bezero guztiei egindako eskaintzen bitartez eta Bezero Bazkideei egindako promozio segmentatuen bitartez.

EROSKI Klubak, uda ondoren 3 urte beteko dituen honetan, 3 milioi Bezero Bazkideetik gora ditu jada. Txartela darabiltenek prezio hobeak lortzen dituzte zenbait produktutan; eskaintza eskusiboak eta beherapen pertsonalizatuak izaten dituzte txartelean bertan, saldo modura, eta, gainera, Travel Club programaren abantaila guztiak dituzte.

Orain berriki, EROSKI Klubak bere Bezero Bazkideei dirua aurrezteko beste ekimen bat dela medio, kooperatibak kreditu txartel berri bat aurkeztu du, Mastercardekin eta Santander Consumer Financerekin elkarlanean. Hala, txartel berriak aurrezpen bilakatuko du EROSKI-tik\* kanpo ordaindutako erosketen %1, eta diru hori EROSKI Klubaren txartel elkartuan sartuko du, Bezero Bazkideak diru gisa erabil dezan edozein supermerkatu, hipermerkatu, gasolindegia, optika, bidaiaria agentzia edo kooperatibaren on line dendatan erosketak egiteko orduan.

\* Kanpoan gelditzen dira Hipermerkatuak eta bere gasolindegia eta Supermerkatuak eta bere gasolindegia, Elikadura dendak, jokoarekin eta apustuekin zerikusia duten erabilerak eta eskuduru ateratzeak eta uzteak, ez baitira ondasunak edo zerbitzuak erosteko operazioak. Zenbatekoa kalkulatzeko, erosketak garbia hartzen da (abonuak eta itzulketak kenduta), dendako saltzaileak komunikatutako jardura tipologiaren arabera.

## **EROSKIri buruz**

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta erreferentziazko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. 1.800 saltokitik gorako sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, hori ditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash&carry-ak; eta, horrez gain, gasolindegia, bidaiaria bulegoak, lurrindegia eta kirol ekipamendurako dendak. 33.870 pertsonak baino gehiagok osatzen dute kooperatibako bazkideen eta langile bazkideen multzoa.

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

#### **CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)